
Lasarte-Oriak emakumeengan ahalduntze prozesuen integrazioa bultzatzen du 'Empalabramiento' programa berriaren bitartez

Ekimen honek gaztelaniaren ikaskuntza eta norbanakoaren eta taldeen ahalduntze prozesuak uztartzen ditu.

Lasarte-Oriako Udalak, Gizarte Zerbitzu, Berdintasun, Garapenerako Lankidetzeta eta Osasun Saileko Berdintasun Sailaren bitartez, '**Empalabramiento**' programa aurkeztu du gaur. Gipuzkoako beste herri batzuetan esperientzia positiboak dituen proiektu honek **datorren asteartean, otsailaren 3an**, ekingo dio bere ibilbideari.

Aurkezpen prentsaurrekoan Lasarte-Oriako alkate **Agustín Valdiviak**, Gizarte Zerbitzu, Berdintasun, Garapenerako Lankidetzeta eta Osasun Saileko zinegotzi **Lourdes Acevedo Beldarrainek** eta Berdintasun teknikari **Izaskun Rodríguez Elkorok** parte hartu dute, eta bat etorri dira ekimen hau interakzio sozialerako eta ahalduntze feministarako apustu estrategikoa dela esatean.

Emakumeen errealitatera egokitutako metodoa

'**Empalabramiento**' beste hizkuntza ikastaroetatik bereizten da ikuspegi feminista duen ELE (Gaztelania Atzerriko Hizkuntza gisa) metodologiagatik. Material didaktikoak ez dira estandarrak, baizik eta egokitu egin dira, testuinguru soziala eta ikasleen eguneroko beharrak kontuan hartzeko.

Helburua gramatikatik haratago doa: eremu seguru eta konfiantzazkoa sortzea bilatzen da, non ikasleak ahaldundu ahal izango diren gaztelaniazko hitzaren bidez, bigarren (edo hirugarren) hizkuntza gisa.

Programaren helburuak:

- **Ahalduntze indibidual eta kolektiboa:** Eskubide osoko herritar gisa, norberaren eskubide eta gaitasunen gaineko kontzientzia hartzea sustatzea.
- **Gizarteratzea eta laneratzea:** parte-hartzaileei baliabideak eskuratzeko eta lan-aukerak hobetzeko behar dituzten hizkuntza-tresnak ematea.
- **Kulturara hurbiltzea:** Gazteleraz gain, euskarara oinarrizko hurbilketa eskaintzen du ikastaroak, lurraldeko errealitate kulturalen erabat integratzea bultzatuz.

Egutegia eta matrikulen formalizazioa

Klaseak **Emakumearen Zentroan** emango dira, ordutegi honetan:

- **Egunak:** Astearte eta ostegunetan.
- **Ordutegia:** 15:00etatik 17:00etara.
- **Ikasturtearen hasiera:** Otsailak 3, asteartea.

Izen-ematea zabalik dago gaztelania ikasi nahi duten Lasarte-Oriako emakume guztientzat. Garrantzitsua da matrikula ikasturte osoan irekita egongo dela, eta ikasle berriak sartu ahal izango direla taldea osatu arte.

Interesdunek informazio gehiago jaso eta izena eman dezakete bide hauen bitartez:

- **Udalaren webgunea:** www.lasarte-oria.eus/empalabramiento
- **Presentziala:** Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuak (Villa Mirentxu).
- **Telefonoa:** 943 376 055.



Lasarte-Oria impulsa la integración procesos de empoderamiento en mujeres a través del nuevo programa ‘Empalabramiento’

Esta iniciativa combina el aprendizaje del castellano con procesos de empoderamiento individual y colectivos.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, a través del Área de Igualdad del Departamento de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación al Desarrollo y Salud ha presentado hoy el programa ‘**Empalabramiento**’. Este proyecto, que ya cuenta con experiencias positivas en otras localidades gipuzkoanas, comenzará su andadura en el municipio el próximo **martes 3 de febrero**.

En la rueda de prensa de presentación han participado el Alcalde de Lasarte-Oria, **Agustín Valdivia Calvo**, la Concejala de Servicios Sociales, Igualdad, Cooperación al Desarrollo y Salud, **Lourdes Acevedo Beldarráin** y la técnica de Igualdad, **Izaskun Rodríguez Elgoro**, quienes han coincidido en señalar que esta iniciativa es una apuesta estratégica para la interacción social y el empoderamiento feminista.

Un método adaptado a la realidad de las mujeres

‘*Empalabramiento*’ se distingue de otros cursos de idiomas por su metodología ELE (Español como Lengua Extranjera) con perspectiva feminista. Los materiales didácticos no son estándar, sino que han sido adaptados para tener en cuenta el contexto social y las necesidades diarias de las alumnas.

El objetivo va más allá de la gramática: se busca crear un espacio seguro y de confianza donde las alumnas puedan empoderarse a través de la palabra en español como segunda (o tercera) lengua.

El programa persigue:

- **Empoderamiento individual y colectivo:** Fomentar la toma de conciencia sobre los propios derechos y capacidades como ciudadanas de pleno derecho.
- **Inclusión sociolaboral:** Facilitar las herramientas lingüísticas necesarias para que las participantes puedan acceder a recursos y mejorar sus opciones de empleo.
- **Acercamiento cultural:** Además del castellano, el curso ofrece una aproximación básica al euskera, favoreciendo una integración plena en la realidad cultural del territorio.

Calendario y formalización de matrículas

Las clases se impartirán en el **Centro de la Mujer (Emakumearen Zentroa)** en el siguiente horario:

- **Días:** Martes y jueves.
- **Horario:** De 15:00 a 17:00 horas.
- **Inicio de curso:** Martes, 3 de febrero.



La inscripción está abierta a todas las mujeres de Lasarte-Oria que deseen aprender castellano. Un aspecto relevante es que la matrícula permanecerá abierta durante todo el curso, permitiendo la incorporación de nuevas alumnas hasta completar el grupo.

Las interesadas pueden obtener más información e inscribirse a través de los siguientes canales:

- **Web municipal:** www.lasarte-oria.eus/empalabramiento
- **Presencial:** Servicios Sociales de Lasarte-Oria (Villa Mirentxu).
- **Teléfono:** 943 376 055.